

Elizondoko presaren ingurua herriko toki ikoniko bat da, nortasun berezikoa. Presak Baztan uhaldea handitzen du eta inguruko etxeek herri-arkitekturako tipologia desberdinekin xarma bereziko tokia osatzen dute. Hainbertze jendek irudi hori han-hemen sustatu du eta orain aunitzen jomuga bihurtu da, turista aunitzen helmuga.

Berriki arte, Muniarteko zubiko ikuspegiak asetzen zuten jendearen begi-gosea, alta, badira urte batzuk, Zaindari Ikusezina trilogiaren bisitak hasiz geroztik, zubiko ikuspegia aski ez dena eta Iturriotzea eta Errotazainenea etxeen gibelesko alderat joaten dira turistak, uhaldearen bazterrera. Argazkian borobil gorri baten barnean ageri den tokiraino, hain zuzen.



Argazkian borobilean den tokirat jende mukurua hurbiltzen da. Bisitaldi gidatuetakoak hasi ziren lehenik, eta edozein turista ondotik. Astelegunetz edo asteburuz jendea noiznahi ikusi daiteke. Eta, horietako ez guti, arrainen eskalaraino joaten dira.



Jendeketa horrek uhaldearen sedimentu legarrez osatutako eremu hauskorra higitzen du. Berez, landarez behar zuen toki soilgune handian bihurtuz, argazkian ikusten ahal den bezala.




Inguruak halako soilgunea izatea aski ulergarria da. Orain gutxi arte barrideen aldi behineko bisitaldiak bertzerik izaten ez zituen tokiak, gero eta gehiago parke tematikoaren itxura duen Txokotoko eta Elizondoko behe-txoko karrakako bertze txoko bat baita. Neurririk eta kontrolrik gabeko turismoak bereganatutako tokiak, presio antropikoa indartu duena, herritarrek horren gainean deus erran ahal izan gabe.

Nolanahi ere den, herriaren erdian egonik eta toki ikoniko bat izanik, inguruak lanketa berezia beharko luke, ibai-ertzeko ekotonoarekin bat egin dezakeena. Izan ere, uhaldearen bazterra ibai-ekosistemaren egituraren parte izanik, funtzio bereziak ditu. Horrek, herriguneko ingurune berezian bihurtzeko, ibai-ekosistemen adierazle, herritarrek ibai-sistemen konplexutasunaz ohartzeko eta ingurumen kontzientzia handitzeko, azkenerako tokiari balio natural handiagoa emateko.

Horretarako, ibai-ekosistemako zuhaitzak landatzea komenigarria izan daiteke, sahatsak edo hurritzak. Alde batetik, legarrezkoa den luraren higadura gelditzeko baliagarriak izanen dira, beren erroekin lurra atxikiko baitute. Bertze aldetik, zuhaixkak direnez beren garapena guztiz bateragarria izaten ahal da toki horretan dauden etxeekin eta horien ikuspegiekin.

Horrelako toki batek herritarren gozamenerako beharko luke, baina haraino sartu behar izan gabe. Muniarteko zubitik gozatzeko gisan.

Katastroko behako laster batek toki hori jabari publikoa dela erakusten du, azpiko irudian ikusten ahal den bezala.



### Horregatik, ESKATZEN DUGU:

- Aipatu tokira sarbidea mugatzea kartel baten bidez. Barrideak horretarik salbuetsiz. Kartelean berroneratzen ari den eremua dela paratzen ahal da, debekua arrazoitzeko
- Sahats edo hurritz batzuk landatzea, ibai-ertzeko ohiko zuhaixkak baitira, eta lurra atxekitzen lagunduko baitute, ur—handiekin gertatzen den higadura tipituz.
- Sahatsak eta hurritzak handitzekin horko platanondoak kentzea, kanpoko espezieak direlako.

Aitzinetik eskerrak emanez

Baztanen, 2025eko urrian.